

Euskadin, herritarretan hamarretik bik osasun- aseguru pribatu bat du

Unai Martín



Aseguratutako pertsonaren profila biztanleria osoarena baino gazteagoa da, eta klase sozial handiagokoa. Enpresek edo kolektiboek harpidetutako polizak dira ohikoenak


Iradokitutako aipua: MARTIN, U. (2020). *Euskadin, herritarretan hamarretik bik osasun-aseguru pribatu bat du*. OSEKI Osasun eskubidearen aldeko ekimena-Iniciativa por el derecho a la salud. Eskuragai: <https://www.oseki.eus/eu/arloak/euskadiko-egoera/osasun-sistema/>



Osasun-aseguruaren pribatizazioa mehatxu handia da biztanleriaren osasunerako eta osasun arloko ekitaterako. Batetik, ahuldu egiten ditu osasun-sistema publikoak, bai beren zilegitasunaren eta gizarte-laguntzaren ikuspegitik, bai eskura dituzten baliabideen ikuspegitik. Gainera, oztopoak sortzen ditu osasun-asistentziarako, eta bizitzaren medikalizazioa eta osasunaren merkantilizazioa areagotzen ditu <https://www.oseki.eus/articulos/riesgos-privatizacion-sanitaria/>.

Euskadiren kasuan, osasun-aseguru pribatua dutenen portzentajea %16-20 inguruan litzateke, erabilitako iturriaren arabera¹. Portzentaje hori asko aldatzen da lurralde historiko batetik bestera. Izan ere, Bizkaian %26,6k aseguru-mota hori duen bitartean, portzentajea %15,3raino jaisten da Araban eta %11,6raino Gipuzkoan.


1. GRAFIKOA. OSASUN-ASEGURU PRIBATUA DUTEN PERTSONEN PORTZENTAJEA, GUZTIRA (2017KO EASPEN ETA 2018KO EAEOIEN KALKULUEN ARABERA), SEXUA ETA LURRALDE HISTORIKOA KONTUAN HARTUTA. EUSKADI 2017-18



ITURRIA: EGILEAK EGINA, EUSTAT-EN OSASUN ARRETA PRIBATUAREN ESTADISTIKA (EASP17) ETA EAEOI 2018REN ESTIMAZIOA AINTZAT HARTUTA ETA EUSKO JAURLARITZAREN OSASUN SAILAREN 2018KO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO OSASUN INKESTAN OINARRITUTA.

Euskadik maila handiagoko aseguramendu pribatua du estatuko gainerako erkidegoekin alderatuta. Aseguramendu maila handienetan laugarren erkidegoa da, Madril, Katalunia eta Balearrak baino ez ditu aurretik, eta alde handia du maila baxueneko aseguramendu pribatua dutenen erkidegoekiko. Zehazki, Kantabriaren aseguramendu pribatuaren hiru halako eta Nafarroarenaren bi halako maila du.


2. GRAFIKOA. OSASUN-ASEGURU PRIBATUA (ZERBITZU-PRESTAZIOA) DUTEN PERTSONAK, ERKIDEGOEN ARABERA. ESPAINIA 2018




ITURRIA: UNESPA. ESTAMOS SEGUROS TXOSTENA, 2018.

Kontuan hartuz Bizkaiaren eta gainerako lurralde historikoen artean azaldutako aldeak, estatuko gainerakoekin egi-ten den alderaketa ere probintzia ikuspegi hori erabilia egitea komeni da. Hala, adierazle modura osasun-aseguru pribatuaren garrantzi ekonomikoa probintziako hartuz gero, Bizkaia aseguratuen gehien dutenetan bosgarren da Espainiako 50 probintzien artean. Araba eta Gipuzkoa, aldiz, azken lekuetan dira aseguratuen pribatizazioari dago-kionez; bi probintziak baino ez dute horiek baino gutxiago, Nafarroak eta Kantabriak, hain zuzen.

3. GRAFIKOA. OSASUN-ASEGURU PRIBATUAREN GARRANTZI EKONOMIKOA (BPGAREN GAINEAN) PROBINTZIAKO. ESPAINIA 2016






ITURRIA: UNESPA. ESTAMOS SEGUROS TXOSTENA.

Osasun-aseguru pribatu motari dagokionez, ohikoenak enpresek harpidetutako aseguru kolektiboak dira, sinatutako aseguru guztien %58,8 baitira. Norbanakoek edo familiek harpidetutako aseguruak, bere aldetik, %34,0 dira, eta funtzionarioen mutualitateenak %7,2. Portzentaje hori aldatu egiten da lurralde historikoen artean. Aseguru kolektiboek Bizkaiaren lortzen dute portzentajerik handiena (%62,7), eta Gipuzkoan txikiena (%47,5).


4. GRAFIKOA. OSASUN-ASEGURU PRIBATUA DUTEN PERTSONAK, ASEGURU MOTAREN ARABERA. EUSKADI 2017



ITURRIA: EGILEAK EGINA, EUSTAT-EN OSASUN ARRETA PRIBATUAREN ESTADISTIKAN (EASP17) OINARRITUTA.

Osasun-aseguru pribatua duten pertsonen portzentajeaz gain, garrantzi handikoa da aseguraturako pertsonen profila eta herritarrekin, oro har, dituzten aldeak ezagutzea. Adina da ezaugarririk aipagarrienetakoa. Hala, adineko jendeak osasun-aseguru pribatu gutxiago du haurren, gazteen zein helduen aldean. Era horretan, osasun-asegurua duten pertsonen portzentajea %22,9 den bitartean 45 eta 64 urtekoen artean eta %22, hain zuzen, 25 eta 44 urtekoen artean, portzentajea %12,2ra murrizten da 75 urte eta hortik gorako adinekoen artean. Gainerako adinetan, berriz, portzentajea %18 inguruan dabil.

5. GRAFIKOA. OSASUN-ASEGURU PRIBATUA DUTEN PERTSONAK, ADIN-TALDEAREN ARABERA. GUZTIZKOA ETA PORTZENTAJEA ADIN-TALDE BAKOITZEAN. EUSKADI 2017




ITURRIA: EGILEAK EGINA, EUSTAT-EN OSASUN ARRETA PRIBATUAREN ESTATISTIKAN (EASP17) OINARRITUTA.

Osasun-aseguru pribatua hedatzearen arriskuak bat da estatus handieneko pertsonen jotzen dutela lehenik osasun-aseguru pribatu batera, horrek osasun sistema publiko, unibertsal eta kalitatezkoaren gizarte-legitimaziorako eta mantentzeko dakartzan ondorioekin (ikus webgune honetako “Osasun-pribatizazioaren arriskuak” atala).


Euskadin ere egoera bera gertatzen da. Hala, ondoren erakusten diren grafikoek ondo azaltzen dute nola aseguru pribatuek gora egiten duten ikasketa mailak edo klase soziala gora doan heinean. Aseguru pribatu bat izatearen prebalentzia estandarizatu, oinarritzko ikasketak edo gutxiagokoak dituztenengan, emakumezkoetan %6,0 eta gizonezkoetan %7,9 den bitartean, portzentajeak %36,6ra egiten du gora emakumezkoetan eta %34,5era, berriz, gizonezkoetan unibertsitate-ikasketak dituztenengan.

6. GRAFIKOA. OSASUN-ASEGURU PRIVATUA DUTENEN PORTZENTAJE ESTANDARIZATUA, KLASE SOZIALAREN ARABERA. EUSKADI 2017



I: KLASE SOZIAL ALTUENA - V: KLASE SOZIAL BAXUENA.
ITURRIA: EGILEAK EGINA 2018KO EAE OITIK ABIATUTA.

7. GRAFIKOA. OSASUN-ASEGURU PRIVATUA DUTENEN PORTZENTAJE ESTANDARIZATUA, IKASKETA MAILAREN ARABERA. EUSKADI 2017



ITURRIA: EGILEAK EGINA 2018KO EAE OITIK ABIATUTA



ARGITARATUTA: Leioan, Espainian

EDITOREA: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

1 Dokumentu hau egiteko, bi iturri hartu izan dira bereziki kontuan: Eustat Euskal Estatistika Erakundeak egindako Osasun Arreta Privatuaren Estatistika (EASP17) eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak burututako 2018ko Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Inkesta.